



UDAL ETA FORU HAUTESKUNDEAK 2023



ARETXABALETA



ESKORIATZA



EH BILDU NAGUSI HERRI GUZTIETAN

Aurkeztu den Debagoieneko zortzi herrietan irabazi du EH Bilduk, baita duela zortzi urtetik EAJren alkatetza zuten Arrasaten, Aretxabaletan eta Eskoriatzan ere / 2

ARRASATE

Aretxabaletako, Arrasateko eta Eskoriatzako EH Bilduren alkategaiak, zinegotziak eta jarraitzaileak garaipena ospatzen. IMANOL SORIANO, LUKEN UGARTEBURU ETA UXUE IGARZA

BOTO GEHIEN JASO DITUZTEN ALKATEGAIAK



ARRASATE
Maider
Morras
EH BILDU



BERGARA
Gorka
Artola
EH BILDU




OÑATI
Izaro
Elorza
EH BILDU



ARETXABALETA
Gari
Iturbe
EH BILDU



ESKORIATZA
Edorta
Zubizarreta
EH BILDU



ANTZUOLA
Olatz
Lezeta
EH BILDU



ELGETA
Ibon
Unzetabarrenetxea
EH BILDU



ARAMAIO
Iban
Herrarte
EH BILDU



GATZAGA
Dorleta
Elkorobarrutia
LG

2023

DEBAGOIENA

2019


Alderdia	Botoak	%	Zinegotziak
EH BILDU	15.875	%51,87	64
EAJ	10.233	%33,44	40
PSE-EE	2.198	%7,18	3
ELKARREKIN	1.203	%3,93	1
PP	565	%1,85	0
LG	72	%0,24	5

- Errolda: 49.597.
- Boto emaileak: 30.958.
- Abstentzioa: %37,58.

Alderdia	Botoak	%	Zinegotziak
EH BILDU	15.629	%44,76	57
EAJ	13.646	%39,08	44
PSE-EE	2.657	%7,61	5
ELK. POD.	1.169	%3,35	1
IRABAZI	355	%1,02	0
PP	286	%0,82	0
ARRA. AU.	271	%0,78	0
ELIZATEAK	209	%0,60	1
AHAL DUG.	207	%0,59	0

- Errolda: 50.266.
- Boto emaileak: 35.232.
- Abstentzioa: %29,89.

GIPUZKOAKO BATZAR NAGUSIAK



2023

Alderdia	Botoak	%	Batzarkideak
EH BILDU	120.578	% 36,64	22
EAJ	105.437	% 32,04	17
PSE-EE	51.591	% 15,67	7
ELKARREKIN	21.283	% 6,46	2
PP	20.574	% 6,25	3
STOP	1.858	% 0,56	0
AULKI ZURIAK	1.764	% 0,53	0

- Errolda: 555.864.
- Boto emaileak: 333.123.
- Abstentzioa: %40,47.

2019



Alderdia	Botoak	%	Batzarkideak
EAJ	130.767	% 35,60	20
EH BILDU	116.113	% 31,61	17
PSE-EE	62.788	% 17,09	9
ELK. POD.	32.831	% 8,94	4
PP	17.303	% 4,71	1
C'S	3.686	% 1,00	0
A. ZURIAK	625	% 0,17	0

- Errolda: 558.145.
- Boto emaileak: 370.439.
- Abstentzioa: % 33,38.

ARRASATE

AULKIAK 2023 EH BILDU 10. EAJ 8. PSE-EE 2. ELKARREKIN 1. PP 0.
2019 EAJ 9. EH BILDU 8. PSE-EE 3. ELKARREKIN PODEMOS 1. ARRASATE AURRERA! 0. PP 0.

Zortzi urte igaro eta gero, alkatetzako atea irekitzen dizkion emaitzak lortu ditu EH Bilduk



Maidor Morras EH BILDU: "Gau magikoa izan da, zuzenean goaz alkatetzara. Bihar bertan hasiko gara etorkizunera begira lanean, zuzen eta zintzo, horrenbeste maite dugun herri honen alde".

Maria Ubarretxena EAJ: "Botoa gure alde eman dutenei eskerrak eman nahi dizkiet. Hauxe da demokrazia, EH Bilduren gorakada orokorra izan da, baita Arrasaten ere".


Aritz Murua PSE-EE: "EH Bildu zoriondu nahi dut, hasteko. Abstentzioak min egin digu eta zinegotzi bat galdu dugu. Oposizioan ekarpenak egiten jarraituko dugu".

Eva Abuin ELKARREKIN: "Parte-hartzea jaitsita ere boto kopurua mantendu egin dugu; pozik gaude. Bihar telefonoa hartzeko gertu izango gara, denei, nahiz eta deia leku bakarretik egingo diguten".

BERGARA

AULKIAK 2023 EH BILDU 10. EAJ 6. PSE-EE 1. ELKARREKIN 0. PP 0.
AULKIAK 2019 EH BILDU 9. EAJ 7. PSE-EE 1. IRABAZI 0. AHAL DUGU 0.

EH Bilduk eserleku bat gehiago lortu du; hamar zinegotzi izango ditu, EAJk bat galdua



DATOZEN LAU URTEETAN ERE GEHIENGO OSOA IZANGO DU EH BILDUK

ABSTENTZIOA 10,26 PUNTU HAZI DA 2019KO HAUTESKUNDEEKIN ALDERATUTA

Gorka Artola EH BILDU: "Oso pozgarria da. Uste dut lau urte hauetako taldearen eta egindako lanaren aitortza dela emaitza, eta sekulako indarra eman digu beste lau urtez lanean jarraitzeko".

Mikel Lete EAJ: "Emaitzak ez dira izan espero genituenak. Eskerrak eman nahi dizkiet botoa eman digutenei, baina argi dago irabazle garbia EH Bildu izan dela. Nire partetik, zoriondu besterik ez".

Alberto Alonso PSE-EE: "Errepikatu egingo dut eta uste dugu nahiko ona dela. Gure lanak saria eduki du. Beste alderdi batzuek izan dituzte aldetak, eta norberak egin beharko du hausnarketa".


















Andres Diez ELKARREKIN: "Emaitza ez da ona. Uste genuen zinegotzi bat atera genezakeela, baina lanean jarraituko dugu. Nire partetik, zorionak EH Bilduri".




OÑATI

AULKIAK 2023 EH BILDU 11. EAJ 6. PSE-EE 0. PP 0.
2019 EH BILDU 10. EAJ 7. PSE-EE 0.

EH Bildu garaile hamaika zinegotzirekin, bat irabazita; EAJk sei aulki, zinegotzi bat galduta

 EH BILDU Izaro Elorza	 EH BILDU Xabier Igartua	 EH BILDU Lierni Altube	 EH BILDU Anik Zubizarreta	 EH BILDU Iñigo Ruiz	 EH BILDU Iñaki Olaide	 EH BILDU Saioa Arkonada
 EH BILDU Iker Oñate	 EH BILDU Asier Lauzurika	 EH BILDU Ekhiñe Mendia	 EH BILDU Idoia Aierbe	 EAJ Amaia Erostarbe	 EAJ Xabier Mugarza	
 EAJ Itziar Alonso	 EAJ Eva Gayubo	 EAJ Jon Kepa Gerrikagoitia	 EAJ Claudia Valdivieso	EH BILDUK EAJ-K BAINO 1.346 BOTO GEHIAGO, PARTE-HARTZEA JAITSI EGIN BADA ERE		BATZAR NAGUSIETARAKO BOZKETAN ERE EH BILDU GARAILE, 3.073 JASOTA



Izaro Elorza EH BILDU: "Herritarrek gudan daukaten konfiantza berretsi egin dute, eta, gainera, zinegotzi bat gehiago lortu dugu; beraz, orain arte egindako bidean eta proiektuetan sakontzeko asmoa dugu. Oso pozik gaude Debagoienean eta, orokorrean, Gipuzkoan lortutako emaitzekin ere".

Amaia Erostarbe EAJ: "Genituen zazpi zinegotziri eutsi nahi genien arren, bat galdu dugu, baina, Gipuzkoako emaitzak ikusita, ez da horren galera handia. Pena da, baina, gure proiektuek aurrera egiten ez badute auskalo zer gertatu den orain, esaterako, Musika Eskolarekin".

Ricardo Guisado PP: "Herriarendako proposamenak egin ditugu gure programan; beraz, beste alderdiek ere aprobetxatzeko modukoak izan daitezke".

ARETXABALETA

AULKIAK 2023 EH BILDU 7. EAJ 6. PSE-EE 0. ELKARREKIN 0. PP 0.
2019 EAJ 7. EH BILDU 6. PSE-EE 0. ELKARREKIN PODEMOS 0. PP 0.

EH Bildu irabazle, EAJri 300 boto pasatxoko alde aterata eta zinegotzi bat irabazita


 EH BILDU Gari Iturbe	 EH BILDU Nerea Zubillaga	 EH BILDU Ion Albizu	 EH BILDU Lorea Serrato	 EH BILDU Ibai Zangitu	 EH BILDU Ainhoa Sanchez	 EH BILDU Angel Mari Etxabe
 EAJ Mikel Uribebarria	 EAJ Conchi Muñoz	 EAJ Javier Mar	 EAJ Karmele Uribarri	 EAJ Unai Elkoro	 EAJ Maider Triviño	

EH BILDUK 2019AN BAINO 222 BOTO GEHIAGO JASO DITU ETA ZAZPIGARREN ZINEGOTZIA LORTU DU

EUZKO ALDERDI JELTZALEAK 407 BOTO GALDU DITU, BAITA ZINEGOTZI BAT ERE

GAINERAKO HIRU ALDERDIAK, PSE-EE, ELKARREKIN ETA PP, OSO ATZETIK GERATU DIRA

PARTE-HARTZEAK BEHERA EGIN DU ETA 278 HERRITAR GUTXIAGO JOAN DA BOTOA EMATERA



Gari Iturbe EH BILDU: "Bagenuen esperantza, eta lortu dugu. Horren atzean lan galanta dago. Etxekoak ditut gogoan, aita eta, bereziki, ama, izugarri poztuko litzatekeelako. Eskerrak eman gura dizkiet taldekideei eta orain arte zinegotzi izan direnei, egindako lanagatik. Oso pozik gaude eta gaur ospatzeko eguna da".

Mikel Uribebarria EAJ: "Ez dira izan esperotako emaitzak, baina nahiko txukunak dira. Onartu egin behar dira, eta, hemendik aurrera, tokatzen zaigun lekutik lanean jarraitu beharko dugu. Aretxabaletarrak zoriondu egingo nituzke bozkatzera joan izanagatik, abstentzio maila onargarria izan dugu eta. Eta zorionak EH Bilduri".

Rafa Bernal ELKARREKIN: "Alderdi-bitasuna dugula argi geratu da, baina, behintzat, irailketa egon da eta ezkerreko politika itzuli da. Zorionak Gariri, eta jakin dezala gu hor gaudela edozertarako".

ESKORIATZA

AULKIAK 2023 EH BILDU 7. EAJ 4. ELKARREKIN ESKORIATZA 0. PSE 0. 2019 EAJ 6. EH BILDU 4. ESKORIATZAKO ELIZATEAK 1. ELKARREKIN PODEMOS 0. PSE-EE 0.

EH Bilduk garaipen argia lortu du eta Edorta Zubizarreta izango da herriko alkatea



EH BILDU
Edorta
Zubizarreta



EH BILDU
Alaitz
Orueta



EH BILDU
Edorta
Barandiaran



EH BILDU
Xabi
Uriarte



EH BILDU
Irati
Iglesias



EH BILDU
Mikel
Luengo



EH BILDU
Dorleta
Sologaitoa



EAJ
Joserra
Zubizarreta



EAJ
Maite
Uribe



EAJ
Antonio
Regaño




EAJ
Puri
Regidor

**LAU ZINEGOTZI
IZATETIK ZAZPI
IZATERA PASA DA
EH BILDU; EAJ,
SEITIK LAURA**

**EH BILDUK UDAL
GOBERNUA
OSATUKO DU BERE
KABUZ, BOTOEN
%59,9 LORTUTA**

**ELKARREKIN
ESKORIATZAK ETA
PSE-K EZ DUTE
ORDEZKARITZARIK
IZANGO UDALEAN**

**ESKORIATZAREN
ABSTENTZIOA IA
ZAZPI PUNTU IGO
DA, %28,64TIK
%35,25ERA**



Edorta Zubizarreta EH BILDU: "Lehia parekatuagoa espero genuen, sorpresaz hartu ditugu halako emaitzak. Daukagun taldearekin indartsu irteten gara. Astelehenean atsedean hartu, eta martitzenean hasiko gara datozen lau urteetako plangintza prestatzen".

Joserra Zubizarreta EAJ: "Zorionak EH Bilduri. Emaitza oso garbia izan da, ez dago aitzakiarik, guk galdu ditugun denak irabazi dituzte eurek. Herriak aldaketa eskatu du, eta guk zintzo beteko dugu, bozkatu gaituztenak ahalik eta ondoen ordezkaturik. Egunotan gertatutakoaz hausnartuko dugu".

Juan Luis Merino ELKARREKIN: "Eskoriatzan botoa polarizatuta dago, baina arriskatu egin gara, zortetik gabe. Onartzen dugu emaitza; zorionak EH Bilduri".

ANTZUOLA

AULKIAK 2023 EH BILDU 7. EAJ 4. 2019 EH BILDU 7. EAJ 3. PSE-EE 1.

Botoen %57,23 eskuratuta, gehiengoa lortu du EH Bilduk, eta Olatz Lezeta izango da alkatea



EH BILDU
Olatz
Lezeta



EH BILDU
Aritz
Igeltz



EH BILDU
Amaia
Azkarate



EH BILDU
Imanol
Lizarralde



EH BILDU
Puri
Arregi




EH BILDU
Juan Kruz
Lizarralde



EH BILDU
Inma
Beristain



EAJ
Josu Xabier
Aranguren



EAJ
Dina
Mujika



EAJ
Basilio
Ormazabal




EAJ
Rakel
Velasco

**EH BILDUK UDAL
GOBERNUA
OSATUKO DU, BESTE
BEHIN, ZAZPI
ZINEGOTZIREKIN**

**HIRU ZINEGOTZI
IZATETIK LAU
IZATERA PASA DA
EAJ, BOTOEN
%33,72 JASOTA**

**SOZIALISTEK EZ
DUTE
ORDEZKARITZARIK
IZANGO UDALEAN;
LEHEN ALDIA DA**

**ZORTZI PUNTU IGO
DA HERRITARREN
ABSTENTZIOA:
%25,26TIK
%33,33RA**



Olatz Lezeta Urzelai EH BILDU: "Emaitzak onak dira guretako. Prest eta gogoz nago, eta lau urtean saiatuko gara gauzak ondo egiten, jendearekin elkarlanean, herritarrek gustura egon daitezen".

Josu Xabier Aranguren Ezpeleta EAJ: "Argi dago lan gehiago egiten jarraitu behar dugula, helburua irabaztea delako, baina herriak berba egin du, eta beti gora joatea pozgarria da".

Miren Gallastegi Oiarzabal PSE-EE: "Herritarrek hitz egin dute; emaitzak direnak dira. Eskerrak eman nahi dizkiegu PSEri botoa eman dioten guztiei. Antzuolaren alde jarraituko dugu lanean".



ELGETA

AULKIAK 2023 EH BILDU 6. EAJ 3. PSE-EE 0.
2019 EH BILDU 6. EAJ 3. PSE-EE 0.

EH Bilduk jarraituko du alkatetzan, eta, orain bezala, gehiengo osoarekin gobernatuko du



EH BILDU
Ibon
Unzetabarrenetxea



EH BILDU
Maialen
Arnedo



EH BILDU
Ione
Elkoro



EH BILDU
Kepa
De Vega



EH BILDU
Miren
Ibarbia



EH BILDU
Saioa
Alberdi



EAJ
Iker
Laka



EAJ
Mikel
Larrea




EAJ
Josu
Leturia

BOTO KOPURUA ERREPIKATU DUTE EH BILDUK ETA PSE-EE-K; EAJ-K 27 BOTO GALDU DITU

AGINTALDI HONETAN BEZALA, EH BILDUK SEI ZINEGOTZI IZANGO DITU ETA EAJK HIRU

ZAZPIGARREN ZINEGOTZIA LORTZEKO LAU BOTO FALTA IZAN ZAIZKIO EH BILDURI

FORU HAUTESKUNDEETAN EH BILDUK 360 BOTO LORTU DITU ETA EAJ-K, 191



Ibon Unzetabarrenetxea EH BILDU: "Oso pozik gaude. Boto kopurua mantendu egin da eta horrek esan nahi du herriak gudan jarri duela konfiantza, beste behin. Pertsonalki banuen esperantza txiki bat zazpi garren zinegotzia lortzeko. Lau botorengatik ez dugu lortu, baina jeltzaleak jaitsi egin dira. Horrek esan nahi du herritarrek konturatu direla Gobernua nola doan. Espero dut agintaldi honetan EAJko ordezkariak aurrekoek baino lan gehiago egitea herriaren alde. Ea lortzen dugun elkarlanean Elgeta hobetzea".

Iker Laka EAJ: "Lehenengo eta behin, zorionak Iboni eta EH Bilduko taldeari. Emaitzei dagokienez, uste dut EAJren babesa kontsolidatu egin dela herrian. Oposiziotik lanean jarraituko dugu emaitza hori geroz eta hobea izan dadin. Elkarlanerako jarrera erakitzailearekin gatz lanera eta emandako hitza beteko dugu. Proposamenak egingo ditugu herri hau dagoen geldialditik ateratzeko".

ARAMAIO

AULKIAK 2023 EH BILDU 6. EAJ 3. PSE-EE 0. PP 0.
2019 EH BILDU 7. EAJ 2. PSE-EE 0. PP 0.

Boto gehien EH Bilduk, zinegotzi bat galdua



EH BILDU
Iban
Herrarte



EH BILDU
Libe
Ramila



EH BILDU
Asier
Agirre



EH BILDU
Amaia
Pavon



EH BILDU
Igor Iker
Ezpeleta



EH BILDU
Martin
Arriolabengoa




EAJ
Alberto
Amenabar



EAJ
Jonatan
Moreno



EAJ
Teresa
Molinuevo



• Errolda: 1.153.
• Boto emaileak: 655.
• Abstentzioa: %43,19.

Baliogabeak: 32 (%4,89).
Zuriak: 25 (%3,82).


Iban Herrarte EH BILDU: "Pozik gaude emaitzarekin. Ez dira txarrak, eta horren babesean egingo dugu lan herrigintzaren alde. Lan egiteko gogotsu gaude. Udala herritarrengana hurbildu behar dugu. Dena den, hasieran genuen kezka bete egin da: abstentzioa oso altua izan da, eta horrek beste irakurketa bat eskatzen du. Boto zuriak eta, bereziki, baliogabeak asko izan dira".

Alberto Amenabar EAJ: "Lortutako emaitzen balorazio positiboa egiten dugu, zinegotzi bat gehiago lortuta".

LEINTZ GATZAGA

AULKIAK 2023 LG 5.
2019 LG 5.


Dorleta Elkorobarrutia izango da alkatea, 72 boto lortuta



LG
Dorleta
Elkorobarrutia



LG
Eneka
Zankada




LG
Aiora
Elkorobarrutia



LG
Juan
Bengoa




LG
Idoia
Armendariz



• Errolda: 165.
• Boto emaileak: 115.
• Abstentzioa: %30,30.

Baliogabeak: 7 (%6,09).
Zuriak: 10 (%9,25).

Dorleta Elkorobarrutia HAUTESLE ELKARTEA: "Alkatetzarako denboratxo bat prestatzen eraman arren, bertigo puntutxo batekin ere banago. Ilusioarekin ere bai. Herri txikia da, baina gauza asko daude egiteko".



GIPUZKOA

MARIA AGIRRE KAZETARIA

"Aldaketa gogoia sumatzen da Gipuzkoan"

Aldaketa gogoia sumatzen da Gipuzkoan. EH Bilduren igoerak eta EAJren jaitsierak hala erakusten dute. Udalerrri garrantzitsuak berreskuratu ditu EH Bilduk, Arrasate zein Tolosa,



besteak beste, eta Batzar Nagusietan indartsu ageri dira lehenengo postuan. Dena, baina, ez dago erabakita, Foru Aldundian, bereziki. Zenbakiak mahai gainean ipinita, hizketan hasi eta

akordioetara iritsi beharko dute orain. Alderdi bakoitzak erabaki beharko du arriskurik hartzea komeni den edo Gipuzkoak erakutsi duen argazkiaren aurrean men egin behar ote duen.

Donostia Zinegotziak

	2023	2019
EAJ	8	10
EH BILDU	8	6
PSE-EE	6	5
PP	3	3
ELKARREKIN	2	3
GUZTIRA	27	27

Batzar Nagusiak Aulkiak



ARABA

AITOR BIAIN KAZETARIA

"EH Bilduren proposamena erosi dute herritarrek"

Emaitzak ikusita, EH Bilduren proposamenak herritarrek kontentatu ditu, bai Gasteizen eta bai Batzar Nagusietan. Agintean zeuden herriei eutsi egin die koalizioak, eta EAJrenak ziren



batzuk bereganatu ditu, gainera; aipagarrienak, Laudio, Oion eta Agurain. Koalizioak ez du botorik galdu, oro har; aldiz, EAJk eta PSE-EEK galera ikaragarria izan dute. Gasteizen 6.700 boto

gutxiago eskuratu dituzte jeltzaleek, eta 1.600 inguru sozialistek. Gobernu itunak zigortu dituzte herritarrek, eta ikusteko dago berriz errepikatzeak zeini egingo dion mesede.

Gasteiz Zinegotziak

	2023	2019
EH BILDU	7	6
PSE-EE	6	6
PP	6	5
EAJ	6	7
ELKARREKIN	2	3
GUZTIRA	27	27

Batzar Nagusiak Aulkiak



BIZKAIA

AITOR ABAROA KAZETARIA

"EAJk, erraz irabazita ere, zigorra jaso du"

EH Bilduk indartu egin du bere posizioa, besteak beste, Lekeition eta Markinan aurre hartu diolako EAJri. Jeltzaleek bi aukera dituzte EH Bildu gehien bozkatutako herrietan: haiei


governatzen utzi edo PSErekin aliatu. Argi geratu da Podemosen beherakadak EH Bildura erakarri duela botoa, baita 2019an EAJren alde agertutako askok oraingoan EH Bilduri

eman diotela konfiantza ere. Batzarretan ere bi alderdien arteko desberdintasuna txikiagotu egin da. EAJk indartsu jarraitzen du, baina tira egin diote belarritik.

Bilbo Zinegotziak

	2023	2019
EAJ	12	14
EH BILDU	6	4
PSE-EE	5	5
PP	4	3
ELKARREKIN	2	3
GUZTIRA	29	29

Batzar Nagusiak Aulkiak



NAFARROA

MARIJO DEOGRACIAS KAZETARIA

"Bizkaiko mendebaldetik Nafarroara begira"

Oraindik gogoan genuen Esporin sozialistak "agur, Asiron!" bota zueneko. Une batez atzera entzungo genuela zirudien, EH Bilduren hautagaiari ondoetorria egiteko oraingoan. Baina ez.


UPNk irabazi ditu hauteskundeak. Asironek Geroa Bairen eta Contigo Zurekinen laguntzarekin alkatetza lor lezake, sozialistak abstenituko balira. Susmoa da Madrilen erabakiko

dela. "Trukerako txanpon ote garen" duda egin zuen Juan Kruz Lakastak Euskalerrira Irratian. Ikusteko Sanchezi axola zaion PPrekin duen lehian Nafarroan nor agindu.

Iruñea Zinegotziak

	2023	2019
UPN	9	-
EH BILDU	8	7
PSN	5	5
GEROA BAI	2	2
PP	2	-
CONTIGO ZUREKIN	1	-
GUZTIRA	27	27

Parlamentua Aulkiak



goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

Argitaratzailea
Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria
Monika Belastegi
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate

Erredakzio batzordea
Eneko Azkarate, Monika Belastegi,
Mirari Altube, Goizatz Arana.
Zuzendari komertziala
Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaiztegorri.
Diseinu arduraduna
Iñaki Iturbe.
Hizkuntza arduraduna
Sergio Azkarate.
Harpidetza eta banaketa arduraduna
Igone Osinaga.

Maketazioa
Imanol Soriano,
Aitor Lagoma,
Amaia Martinez de Arenaza.
Publizitatea
Mireia Larrañaga,
Ziortza Martin,
Amaia Mundiñano.
Administrazioa
Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.
HARPIDETZA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus
EGOITZA NAGUSIA
Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07
berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014
ISSN: 2174-369X
Tirada: 6.000 ale
Difusioa: 6.000 ale

Inprimategia:
Gertu Komunikaziobide SL

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldiakari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia

EH Bildu nagusitu da Debagoiengan

Udaletarako eta Batzar Nagusietarako hauteskundeetan EH Bildu izan da debagoiendarren lehen aukera. Bietan ere EAJri nagusitu zaio, alde nabarmenarekin

Josu Bilbao Atxutegi DEBAGOIENA
EH Bildu alde nabarmenarekin nagusitu da Debagoiengan udal eta foru hauteskundeetan. Debagoieneko zortzi herritan – Leintz Gatzagan Hautesleen Elkarteak bakarrik aurkeztu da alderirik bozkatuena izan da, EAJren aurretik, eta Batzar Nagusietarako ere debagoiendarren lehen aukera izan da. Abstentzioa ere nabarmen igo da 2019ko hauteskundeekin alderatuta. 2019an %29,89koa izan zen eta aurten %37,58koa. Abstentzioa ia zortzi puntu igo arren, EH Bilduk 2019ko datuak hobeto egin ditu.

EH Bildu indartsu

Ia 15.900 boto lortu ditu EH Bilduk udal hauteskundeetan, eta 1.000 gutxiago Batzar Nagusietarako. Udaletarako, horrela, Foru Aldundirako baino 1.000 boto gehiago eskuratu ditu ezker abertzaleak. Datu horiekin, debagoiendar askok hainbat alkatetzatarako EH Bildu lehenetsi

duela ondorioztatu daiteke, eta babes hori ez dela Batzar Nagusietan berdin islatu, nahiz eta ezker abertzalea boto gehien jaso dituen alderdia izan den. Izan ere, herri guztietan, uda-

letarako Aldundirako baino boto gehiago jaso dituzte.

EAJ, bigarren indarra

EH Bildurekin gertatu denaren alderantzizko fenomeno izan

da bailaran EAJrekin. Udaletarako Batzar Nagusietarako baino 313 boto gutxiago jaso dituzte jeltzaleek. Udaletarako eta Foru Aldundirako, orokorrean, babes gutxiago jaso du EAJK, baina, hala ere, Batzar Nagusietarako alkatetzatarako baino babes handiagoa jaso du. Salbuespena Arrasate, Aretxabaleta eta Antzuola izan dira, udalerako Aldundirako baino boto gehiago jaso dituzte eta.

Besteak, alde nabarmenera

EAJrekin gertatu den fenomeno PSErekin eta Elkarrekin Podemosekin ere gertatu da. Sozialistek udaletarako baino 329 boto

gehiago lortu dituzte Batzar Nagusietarako. Elkarrekin Podemosen ere boto gehiago jaso ditu Foru Aldundirako –363 boto–, udalekoekin alderatuta. Moreen kasuan, bailarako lau herritan ez dute zerrendarik aurkeztu –Antzuola, Aramaio, Elgeta eta Oñati–, baina Aldundirako bai. Horrela, bien arteko aldea errazago ulertu daiteke.

PPk ere joera bera jarraitu du. Debagoieneko udaletarako boto gutxiago jaso ditu Batzar Nagusietarako baino –117 boto gutxiago–. Izan ere, Elkarrekin Podemos bezala, PP ez da bailarako hiru herritako udal hauteskundeetara aurkeztu.

Debagoieneko emaitzak udaletan eta Batzar Nagusietan

ITURRIA: GOIENA

	ehbildu			Euzko Alderdi Euzkoia			Euzko Abertzale Erkidegoa			Elkarrekin			PP		
	UDALA	BATZARRAK	ALDEA	UDALA	BATZARRAK	ALDEA	UDALA	BATZARRAK	ALDEA	UDALA	BATZARRAK	ALDEA	UDALA	BATZARRAK	ALDEA
Arrasate	4.301	4.205	-96	3.473	3.338	-135	1.182	1.286	+104	753	744	-9	222	264	+42
Bergara	3.921	3.560	-361	2.295	2.364	+69	439	533	+94	212	317	+105	47	84	+37
Oñati	3.278	3.073	-205	1.932	1.943	+11	218	239	+21	-	176	-	55	64	+9
Aretxabaleta	1.723	1.672	-51	1.419	1.399	-20	181	220	+39	150	167	+17	21	22	+1
Eskoriatza	1.241	1.018	-223	626	732	+106	84	137	+53	88	97	+9	-	13	-
Antzuola	594	562	-32	350	348	-2	68	78	+10	-	41	-	-	3	-
Elgeta	412	360	-52	178	191	+13	13	18	+5	-	22	-	-	7	-
Aramaio	405	345	-60	179	196	+17	13	14	+1	-	47	-	1	6	+5
DEBAGOIENA	15.875	14.852	-1.023	10.452	10.546	+94	2.198	2.527	+329	1.203	1.566	+363	346	463	+117

OHARRA: BATZAR NAGUSIETARAKO EMAITZETAN LEINTZ GATZAGAKO 97 BOTOAK SARTUTA DAUDE.



Aitor
Irure

EH BILDU



Iker
Intza

EH BILDU



Eneritz
Otamendi

EH BILDU



Aintzane
Oiarbide

EAJ



Ander
Garay

EAJ



Rafaela
Romero

PSE-EE

Sei debagoiendar izango dituzte Gipuzkoako Batzar Nagusiek

Sei debagoiendarrek eskuratu dituzte eserlekuak Gipuzkoako Batzar Nagusietarako. Aurreko legealditik, Aintzane Oiarbidek bakarrik errepikatuko du

J.B.A. DEBAGOIENA

Gipuzkoako Batzar Nagusiak eratzeke emaitzen ondorioz sei debagoiendar izango dira batzarkide datozen lau urteetan. EH Bilduk eskuratu ditu boto gehien Gipuzkoan eta hiru debagoiendarrek eskuratu dituzte aulkiak. EAJko bi debagoiendar egongo dira eta PSEko bat.

Deba-Urola barrutian, EH Bildutik Aitor Irure aretxabaleta-

rrak eta Iker Intza bergararrak eskuratu dituzte eserlekuak; EAJtik, bestalde, Aintzane Oiarbide bergararrak eta Ander Garai arrasatearrak eskuratu dituzte eserlekuak.

Donostialdea barrutian, EH Bilduko Eneritz Otamendi eskoriatzarrak lortu du eserlekua; eta Bidasoa-Oiartzun barrutian, PSEko Rafaela Romero arrasatearrak.

Gertu geratu dira

Oria barrutian, bestalde, EAJko Rafa Urizarren arrasatearra eserlekua lortzetik oso gertu gelditu da –1.300 boto inguru–, baina, azkenean, ez da hautatua izan. Deba-Urola barrutian, berriaz, Elkarrekin-Podemoseko Juan Luis Merino eserlekua lortzetik gertu gelditu da –1.460 boto inguru–, baina alderdi moreak ez du aulkirik lortu.



ELENA LAKA

Herriak maite duen alderdia

Herriari zuzendutako maitasun deklarazio batekin egin zuen EH Bilduk kanpaina, eta herriak baiezkota eman dio botoen bitartez. EH Bilduk Debagoieneko herri guztietan lortu du alkatetza, hiru udal irabazi ditu; tartean, bailarako plazarik garrantzitsuen eta Gipuzkoako ikurra: Arrasate. Ez da izan Debagoiena EH Bilduren maitasun politikoaren sareetan jausi den bakarra: Gipuzkoan duela lau urte baino lau puntu gehiago atera ditu EH Bilduk, eta lehen indarra da. Araban eta Bizkaian ere gorakada ikusgarriekin erantzun diote, eta 2011ko olatuan ateratako boto kopurua gainditu du. Oстера, botoek ez dute babestu EAJk proposatzen zuen jarraikortasuna, kudeaketa ziuerra eta zuhurra. EAJk bailaran galdu dituen hiru alkatetzak eta Batzar Nagusietarako galdutako hiru puntuak ezin dira ulertu boterearen higaduratik edo komunikazio txarretik bakarrik. Gizartearen erronka berriei erantzuten asmatu beharko. Bi alderdion arteko polarizazioak kalte egin die PSEri eta Elkarrekin Podemosi, biak ere beherantz. Eta bestetik: abstentzioa %37,58koa Debagoienean.



Karmele Urteaga eta Fernando Alvarez, Oñatiko Correoseko langileak. MIREN ARREGI

Hauteskunde-prozesua ondo joan dadin lanean

Egun luzea izan zen atzokoa hauteskunde-prozesua ondo garatzeko ardura dutenentzat. Mahaietan egon zireneko, baita funtzio ezkutukoagoak dituztenentako ere; Correoseko langileak, udal-langileak eta bake epaileak, kasu

Miren Arregi Amasorrain ARRASATE Herritar gehienentako, botoa kartazalean sartu eta norberari egokitutako boto-ontzian sartzeko eguna da hauteskunde eguna. Baina badira hauteskunde-prozesu osoa zuzen garatzeaz arduratzen diren pertsonak, eta haien funtzioak ezkutukoak izaten dira, normalean. Esate baterako, Co-

reoseko langileak, bake epaileak, administrazioak izendatutako pertsonak eta udal idazkariak. "Zerbait gertatzen bada, mahaiko kideek aholkuren bat behar badute, alderdien kexak baldin badaude... aholkulari lanetan ibili gara", azaldu du egunaren koordinazioaren ardura duen Oñatiko udal idazkari Iñigo Roldanek. Idaz-

karietz gain, herri bakoitzak administrazioak izendatutako pertsonak ditu lanean; biztanleriaren arabera dagokion kopurua. Udal langileak dira, eta haiek dira egunaren hasiera eta bukaera zigitatzen dutenak. "Goizean Ministerioan eta Foru Aldundian eman dugu mahaiaren eraketaren berri, eta kontaketa bukatuta, datuak igorri di-

tugu bi administrazio horietara. Aurten, gainera, lehen aldiz igorri ditugu eguerdiko eta arratsaldeko parte-hartze datuak; orain arte, Correoseko langileek egiten zuten", azaldu du Josune Mendikutek, Leintz Gatzagan jardun horretan aritu den udal langileak.

Egunaren bukaera

Karmele Urteaga Oñatiko Correoseko langilea da, eta goiz egin zuen hauteslekuetara bisita, lankide Fernando Alvarezekin batera: "Posta bidezko botoak dagozkien mahaietara ekartzera gatoz. Gero, iluntzean, mahai bakoitzeko datu guztiak dituen gutun-azal bat hartuko dugu eta bihar bidaliko dugu Ministeriora". Izan ere, hauteskunde-agiriak hiru gutun-azal berrak banatzen dira, behin kontaketa bukatuta. Hirugarrena Correoseko langileek kudeatzen dute, eta 1. eta 2. zenbakietako gutun-azalak bake epaileari eramaten dizkio mahai bakoitzeko presidentek. "Nire lana 20:00 inguruan hasi da Oñatiko epaitegira etorri naizenean, eta, behin gutun-azalak hartuta, dagokion tokian entregatuko ditut. Gutun-azal bat epaitegian bertan geldituko da eta bigarrena, Bergarako epaitegira eramango dut, gaur bertan", azaldu du Oñatin bake epaile lanetan urte mordoxka daramatzan Mari Karmen Telleriak.

AURTEN, LEHEN ALDIZ, UDAL LANGILEEK BIDALI DITUZTE EMAITZAK MINISTERIORA

HAUTESKUNDE BIHARAMUNA

GOIENA TELEBISTA, 'HEMEN DEBAGOIENA' SAIO BEREZIA

GAUR, ASTELEHENA: 18:00, 20:00 ETA 22:00.

HAUTESKUNDEEN EMAITZEN BERRI:

ANALISIAK, BALORAZIOAK ETA HERRITARREN IRITZIAK LARRAITZ ZEBERIOK AURKEZTUTA.



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.

